Gainera, beste dirulaguntza batzuei batuz gehiegizko finantzaketa lortzen bada jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du soberakin hori, eta berandutze-interesak ordaindu.

Asimismo, si en el caso de concurrencia con otras ayudas, se produjera un exceso de financiación respecto del coste de la actividad, la beneficiaria deberá reintegrar el exceso junto con los correspondientes intereses de demora.

Gehiegizko finantzaketaren itzulketa entitate emaileen alde egin behar da, bakoitzak emandako dirulaguntzen heinean.

El reintegro del exceso se hará a favor de las entidades concedentes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas.

1. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko da eta dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean sortutako berandutza-interesak eskatuko dira, eta, hala badagokio, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da kasu hauetan:

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

a) Oinarri hauetan, dirulaguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean.

a) Cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de la concesión o en la normativa de aplicación.

b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat dagoenean.

b) Cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, o en el Decreto Foral 34/2010.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplika dakiekeen berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoa izango da.

3. El interés de demora aplicable a los importes a reintegrar será el previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el en el título II de la Norma Foral 5/2005, y en el título III del Decreto Foral 34/2010.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzen ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) Dirulaguntza ematea eragin zuen proiektuaren gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osoa galduko da.

b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketaren gastuaren zati bat soilik xedatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da xedatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.

c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera.

Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean edo luzapen-epean, baina zatiren bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiaren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, baldin eta gauzatze partzial horrek ez badu eragozten jarduketaren xedea lortzea.

d) Ekintzak edo gastuak gauzatzean edo justifikatzean ez-betetze partzialen bat gertatuz gero itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, kontuan hartuta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak zenbateraino bete diren.

Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako –5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan dago jasota aukera hori–, itzuli egin beharko da zegokionaren gainetik jasotako kopurua, eta dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio kopuru horri.

e) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako duen garrantzia kontuan hartuta.

5. Los criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención serán los siguientes:

a) El incumplimiento de la disposición del gasto para la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, conllevará la pérdida total de la subvención concedida.

b) La disposición parcial del gasto de la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, dará lugar a la pérdida de la subvención correspondiente a la parte no dispuesta, siempre que dicha disposición parcial no impida la consecución del objeto de la actuación subvencionada.

c) El incumplimiento de los plazos de ejecución de la actuación conllevará la obligación de reintegro de las cantidades percibidas junto con los intereses de demora.

No obstante, cuando las actuaciones no hayan sido terminadas en el plazo general o en el de prórroga, pero alguna parte de ellas hayan sido realizadas en plazo, la obligación de reintegro se limitará a la cuantía de la subvención de la parte no realizada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial no impida la consecución del objeto de la actuación.

d) La cantidad a reintegrar en caso de incumplimiento parcial en la ejecución o en la justificación de las acciones o gastos vendrá determinada, con arreglo al criterio de proporcionalidad, atendiendo a la entidad y grado de incumplimiento de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención

En el supuesto de sobrefinanciación por concurrencia con otras ayudas contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

e) El incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en las presentes bases conllevará la pérdida total o parcial de la subvención concedida en función de lo que se dispongan las bases y, en ausencia de previsión expresa, la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad atendiendo a la entidad y grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

16. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak*.

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatutakoa izango da.

2. Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 61. artikuluan aipatzen den zehapen-prozedura administratiboa ofizioz hasiko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmena arautzen duen 1998ko otsailaren 20ko 2/1998 Legean arautukoa izango da, foru-arau horretan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan (Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen du) jasotako berezitasunekin.

3. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa, bai eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legean aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

17. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Organo administratibo emaileek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte lehia-araubidean emandako dirulaguntzak, ondoko hauek adierazita: deialdia, dirulaguntza aurrekontuko zein egitarau eta kredituri egotzi behar zaion, pertsona onuraduna, emandako zenbatekoa eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak.

Emandako dirulaguntzak ez dira «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratu beharko kasu hauetan:

a) Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, banaka hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean. Kasu honetan, oinarri arauek beste prozedura batzuk baliatzea aurreikusi beharko dute, dirulaguntzen ezaugarri berezien nahiz zenbatekoen eta laguntza-kopuruaren arabera, pertsona onuradunen publizitatea bermatzeko.

b) Onuradunaren datuak argitaratzea, dirulaguntzaren xedea dela-eta, pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzearen eta babestearen aurkakoa izan

Base 16. *Infracciones y sanciones.*

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el título IV del Decreto Foral 34/2010.

2. El procedimiento administrativo sancionador a que se refiere el artículo 61 de la Norma Foral de Subvenciones se iniciará de oficio y será el regulado por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, reguladora de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con las especialidades contempladas en dicha Norma Foral y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

3. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015), en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que no se oponga a las anteriores.

Base 17. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Los órganos administrativos concedentes publicarán en el «Boletín Oficial de Bizkaia», las subvenciones concedidas bajo el régimen de concurrencia con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, persona beneficiaria, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención.

No será necesaria la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» la concesión de las subvenciones en los siguientes supuestos:

a) Cuando los importes de las subvenciones concedidas, individualmente consideradas, sean de cuantía inferior a 3.000 euros. En este supuesto, las bases reguladoras deberán prever la utilización de otros procedimientos que, de acuerdo con sus especiales características, cuantía y número, aseguren la publicidad de las personas beneficiarias de las mismas.

b) Cuando la publicación de los datos de la persona beneficiaria en razón del objeto de la subvención pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

daitekeenean, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko 1982ko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta araudi erregulatzailean aurreikusita dagoenean.

c) Onuradunek ageriko egin behar dute, era egokian egin ere, dirulaguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintza guztien finantzaketaren publikotasuna.

en virtud de lo establecido en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen, y haya sido previsto en su normativa reguladora.

c) Las personas beneficiarias deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención.

## III. KAPITULUA.

## DEIALDIA

18. oinarria. *Eskabideak.*

Pertsona edo entitate batek eskabide bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du diruz lagun daitezkeen helburuak desberdinak badira.

19. oinarria. *Eskabideak aurkezteko epea.*

1.- Eskabideak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 23an hasi eta 2026ko urriaren 30ean amaituko da, nekazaritza-ustiategietako ordezkapenetarako nahiz nekazaritzako instalazio edo eraikuntzetako banakako aseguruen primetarako eta erlauntz-aseguruetarako.

2. Aldez aurreko eskaera. Laguntzei buruzko dekretu hau argitaratu aurretik, aldez aurreko eskabidea aurkeztu ahal izango da.

Aldez aurreko eskaera hau egiteko datak 2025eko azaroaren 17tik 2026ko otsailaren 22ra bitartekoak dira.

3. Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planean dauden aseguru-primetarako laguntzak eskatzeko epeak

Ez da beharrezkoa izango beren-beregi eskabide bat aurkeztea Foru Aldundiari: dagokion aseguru-kontratuaren poliza harpidetzea dirulaguntzaren eskaeratzat hartuko da, baldin eta Nekazaritza, Arrantza, eta Elikadura Ministerioak ezarritako epeen barruan harpidetzen bada, eta Nekazaritza Aseguruen Estatuko Erakundeak onartzen badu.

## CAPITULO III.

## CONVOCATORIA

Base 18. *Solicitudes*

Una persona o entidad podrá solicitar más de una solicitud en el caso de que sean diferentes objetos subvencionables.

Base 19. *Plazo de presentación de solicitudes*

1.- El plazo de presentación de las solicitudes, tanto para las sustituciones en explotaciones agrarias como para las primas de seguros individuales en instalaciones o construcciones agrarias y seguros de colmenas, comenzará el 23 de febrero de 2026 y finalizará el 30 de octubre de 2026.

2. Solicitud previa. Previo a la publicación de este decreto de ayudas, podrá presentarse una presolicitud de ayuda.

Las fechas establecidas para esta solicitud previa son desde el 17 de noviembre de 2025 hasta el 22 de febrero de 2026.

3. Plazos de solicitud para ayudas a las primas de seguros incluidas en el Plan de Seguros Agrarios Combinados

No será necesario la presentación de una solicitud específica a la Diputación foral, sino que la suscripción de la correspondiente póliza de contrato de seguro tendrá la consideración de solicitud de la subvención, siempre y cuando la póliza se realice dentro de los periodos establecidos por el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, y sea admitida por la Entidad Estatal de Seguros Agrarios.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BATZORDEAREN 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetan sartuko dira eskabideak aurkezteko epea hasi aurretik Natura Ingurune eta Nekazaritza Sailari bidali zaizkion eskaerak, baldin eta 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluko 2. apartatuan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

*20. oinarria. Eskabideari edo behin-behineko eskabideari gehitu beharreko agiriak.*

1 Eskabidea edo behin-behineko eskabidea egiteko unean, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskabidea edo behin-behineko eskabidea, www.ebizkaia.eus webgunean dagoen ereduen arabera bete ostean.
b) Ordezkatzailearen profila betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa, honako kasu hauetan:
    - Prestakuntza arautua egiaztatzen duten pertsonak, profesionaltasun-ziurtagiria dutenak edo guztira 150 orduko edo gehiagoko nekazaritza-praktikekin lotutako ikastaroak jaso dituztenak.
    - Autonomoak edo gutxienez 6 hilabeteko esperientzia duten enpresa kualifikatuetako langileak. Azken kasu horretan, enpresak pertsona hori bere enpresan lan horiek egiten alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
    - Nekazaritza-ustiategietan gutxienez 6 hilabetez lan egin dutela egiaztatzen duten pertsonak. Kasu horretan, ustiategiaren titularraren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, hori egiaztatzen duena.
    - Azken 3 urteetan Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan gutxienez 6 hilabetez titular izan diren eta ustiategiak gutxienez 0,5 NLU (Nekazaritzako Lan Unitateak) dituen pertsonak.
c) Horretaz gain, gaixotasun edo istripuagatiko ordezkapenetan, kasuan kasuko bajako agiria.
d) Jaiotza-erregistroaren ziurtagiria, haurra jaiotzen denean.
e) Mendekotasunaren kasuan, eskabide-orrian adieraziko da, «BFAk aitortutako mendekotasuna» laukian marka jarrita. Kasu horretan, mendekotasun-graduaren ziurtagiria eta familiaren erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dira. Datu hori elkarreragingarria denez, 4. oinarrian xedatutakoa aplikatuko da.

4. Con base a lo establecido en el artículo 6.2 del Reglamento (UE) 2022/2472 DE LA COMISIÓN de 14 de diciembre de 2022, se integrarán como solicitud a la presente convocatoria aquellas peticiones que se hubieran remitido al departamento de Medio Natural y Agricultura con anterioridad al inicio del periodo de presentación de solicitudes y que cumplan los requisitos exigidos por el citado apartado 2 del artículo 6 del Reglamento (UE) 2022/2472.

*Base 20. Documentación necesaria a aportar junto a la solicitud o presolicitud.*

1. La documentación necesaria a aportar en el momento de la solicitud o presolicitud será:

a) Solicitud o presolicitud cumplimentada por la persona de acuerdo con los modelos establecidos en la web www.ebizkaia.eus
b) Documentación que acredite el cumplimiento del perfil de la persona sustituyente en los siguientes casos:
    - Personas que acrediten formación reglada, posean certificado de profesionalidad o que hayan recibido cursos relacionados con prácticas agrarias por un total igual o mayor de 150 horas.
    - Autónomos o personas trabajadoras en empresas cualificadas con experiencia en la prestación de Servicios Agrarios de al menos 6 meses. En este último caso, la empresa deberá presentar documento que acredite que esa persona se encuentra de alta en su empresa realizando dichas labores.
    - Personas que acrediten haber realizado labores en explotaciones agrarias por un periodo de al menos 6 meses. En este caso, deberán presentar un certificado de la persona titular de la explotación que lo acredite.
    - Personas que hayan sido titulares durante al menos 6 meses en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Bizkaia dentro de los últimos 3 años, y cuya explotación tuviera al menos 0,5 UTA (Unidades de Trabajo Agrario).
c) Además, en las sustituciones por enfermedad o accidente el documento de baja correspondiente.
d) El certificado del registro de nacimiento, en los casos de nacimiento.
e) En el caso de dependencia, se hará constar en el impreso de solicitud, marcando la casilla denominada "Dependencia reconocida por la DFB". Se requerirá en este caso el certificado del grado de dependencia y el certificado de empadronamiento familiar, teniendo en cuenta

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

que este dato es interoperable, se aplicará lo dispuesto en la base 4.

Erroldatzeari dagokionez, eskatzailearen bizileku berean bizi diren familia-unitateko kide guztiek osatuko dute, NNP bazkidea edo pertsona fisikoa bada.
Adinagatik edo gaixotasun edo desgaitasunen batengatik, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera da «mendekotasuna», eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren gabezia edo galerarekin du zerikusia; horren ondorioz, mendekotasuna dutenek beste pertsona baten edo batzuen arreta behar dute, edo laguntza handia behar dute eguneroko oinarrizko ekintzetarako; adimen gaixotasuna edo gaixotasun mentala dutenek, berriz, autonomia pertsonala izateko beste laguntza mota batzuen beharra daukate (abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 2.2 artikulua).

Mendekotasun-graduari dagokionez, ofizialki aitortuta dagoena izango da.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria  Datu hori elkarreragingarria da, eta 4. oinarrian xedatutakoa aplikatu ahal da.

2. Nekazaritzako aseguruen kasuan eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak:

a) Eskabidea, www.ebizkaia.eus webgunean zehaztutako ereduaren arabera beteta.

b) Erlezainen lanbide-elkartea: aseguratutako ustiategien kodeen zerrenda, Excel formatuko fitxategi batean entregatu beharko dena.

c) Banku-helbideratzearen fitxa. Eskabidean laguntza kobratu nahi den bankuaren kontua jasoko da.  Kontu hori ez bada aurrez erabili dirulaguntzak kobratzeko, banku-helbideratzearen fitxa aurkeztu beharko da.

Datu hori elkarreragingarria denez, 4. oinarrian xedatutakoa aplikatuko da.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria  Datu hori elkarreragingarria da, eta 4. oinarrian xedatutakoa aplikatu ahal da.

3. Nekazaritzako aseguru konbinatuen kasuan dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak:

En cuanto al empadronamiento, esté ultimo será el conformado por todos los miembros de la unidad familiar que convivan en el mismo domicilio de la persona solicitante en caso de persona física o de persona socia ATP.
Se entiende como “dependencia” aquel estado de carácter permanente en que se encuentran las personas que, por razones derivadas de la edad, la enfermedad o la discapacidad, y ligadas a la falta o a la pérdida de autonomía física, mental, intelectual o sensorial, precisan de la atención de otra u otras personas o ayudas importantes para realizar actividades básicas de la vida diaria o, en el caso de las personas con discapacidad intelectual o enfermedad mental, de otros apoyos para su autonomía personal (artículo 2.2. de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre).
En cuanto al grado de dependencia, será el oficialmente reconocido.

f) Certificado de al corriente de obligaciones y deudas tributarias, así como con la seguridad social. Este dato es interoperable y es aplicable lo dispuesto en la base 4.

2. Documentación a presentar con la solicitud de subvenciones para seguros agrarios:

a) Solicitud cumplimentada según modelo establecido en www.ebizkaia.eus.

b) Asociación profesional de personas apiculturas: relación de los códigos de las explotaciones aseguradas que se deberá entregar en un fichero con formato Excel.
c) Ficha de domiciliación bancaria. Se hará constar en la solicitud la cuenta del banco donde quiere cobrar.  Si esta cuenta no ha sido utilizada con anterioridad para el cobro de subvenciones, se deberá aportar la ficha de domiciliación bancaria.
Teniendo en cuenta que este dato es interoperable, se aplicará lo dispuesto en la base 4.

d) Certificado de al corriente de obligaciones y deudas tributarias, así como con la seguridad social. Este dato es interoperable y es aplicable lo dispuesto en la base 4.

3. Documentación a presentar con la solicitud se subvenciones para seguros agrarios combinados:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Asegurua kontratatzeko poliza bera izango da dirulaguntzaren eskabidea eta justifikazioa, betiere poliza Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ezarritako epeen barruan harpidetzen bada eta Nekazaritza Aseguruen Estatuko Erakundeak onartzen badu.

Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen (ENESA) kasuan, dirulaguntza AGROSEGUROSi ordainduko zaio, ordezko hartzekodun gisa.

La suscripción de la correspondiente póliza de contrato de seguro tendrá la consideración de solicitud y justificación de la subvención, siempre y cuando la póliza se realice dentro de los periodos establecidos por el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, y sea admitida por la Entidad Estatal de Seguros Agrarios.

En el caso de los Seguros Agrarios Combinados (ENESA) el abono de la subvención se realizará a AGROSEGUROS, como acreedor alternativo.

## 21. oinarria. Zer epetan justifikatu behar den dirulaguntza

Emandako dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2026ko azaroaren 9an amaituko da, nekazaritza-ustiategietako ordezkapenetarako nahiz nekazaritzako instalazio edo eraikuntzetako banakako aseguruen primetarako eta erlauntza-aseguruetarako.

## Base 21. Plazo de justificación de la subvención

El plazo de presentación de la justificación de las subvenciones concedidas, tanto para las sustituciones en explotaciones agrarias como para las primas de seguros individuales en instalaciones o construcciones agrarias y seguros de colmenas, finalizará el 9 de noviembre de 2026.

## 23. oinarria. Dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1 Justifikazioa aurkezteko formularioarekin batera, ordezkapenen kasuan ordainketa justifikatzeko unean aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:.

a) Ordezkapen-zerbitzua egiaztatzen duen kontratua, bi motatakoa izan daitekeena:

1. Ordezkapen-zerbitzua eskatzen duen pertsonak eta ordezkapena egingo duen pertsonak edo enpresak sinatutako kontratu pribatua.

2. Organismo publiko ofizialen kontratu-eredua (Lan Ministerioa, Gizarte Segurantza, Lanbide).

Kontratuek horretarako ezarritako lege- eta zerga-baldintzak beteko dituzte, eta, nolanahi ere, eskaera aurkezteko unean indarrean dagoen araudian ezarritako gutxieneko soldatak bete beharko dira.

b) Eskatzaileak zerbitzua ematen duen pertsonak edo, hala badagokio, kontratatutako enpresak edo nominak egindako faktura aurkeztu beharko du, eta ordainketa banku-transferentzia baten bidez egiaztatu beharko du, non pertsona autonomoa edo, hala badagokio,

## Base 22. Documentación a aportar con la *justificación de la subvención.*

1. Junto con el formulario de presentación de justificación, la documentación a presentar en el momento de la justificación para el pago en el caso de sustituciones será la que se indica a continuación:

a) Un contrato que acredite el servicio de sustitución que podrá ser de dos tipos:

1º. Contrato privado suscrito entre la persona solicitante del servicio de sustitución y la persona o empresa que va a realizar la sustitución.

2º. Contrato modelo de organismos públicos oficiales (Trabajo, Seguridad social, Lanbide).

Los contratos cumplirán con los requisitos legales y tributarios establecidos al efecto y en todo caso se deberá cumplir con los salarios mínimos establecidos en la normativa vigente en el momento de presentación de la solicitud.

b) La persona solicitante deberá presentar factura emitida por la persona que presta el servicio o, en su caso empresa contratada o nómina y acreditar su pago a través de una transferencia bancaria donde queden perfectamente definidas la persona autónoma o la empresa en su caso prestataria del servicio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zerbitzua ematen duen enpresa behar bezala definituta geratuko diren.

Zerbitzuaren emailea nekazaritzako araubide berezian dagoen langile autonomoa bada, kontratua BEZa ordaintzetik salbuetsita egongo da.

En el caso de que el prestatario del servicio sea autónomo en el régimen especial agrario el contrato estará exento de IVA.

Nolanahi ere, faktura egiten duen pertsona fisikoa edo enpresa transferentzia egin eta kontratuan azaltzen den pertsona fisikoa edo enpresa izan beharko da. Gainera, fakturaren guztizko zenbatekoa bat etorriko da transferentziaren guztizkoarekin eta kontratuan ezartzen den zenbatekoarekin.

En todo caso, la persona física o empresa que emite la factura deberá coincidir con la persona física o empresa que realiza la transferencia y consta en el contrato. Asimismo, el importe total factura deberá coincidir con el total de la transferencia, así como con la cantidad establecida en el contrato.

c) Ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduketa-agiria edo -memoria, alderdiek sinatutakoa, datu hauek adierazita (I. eranskina):

1. Ordezkapena zer nekazaritza-ustiategitan egin den.

2. Kostua eta finantzaketa.

3. Ordezkapen-zerbitzua gauzatu dela dioen zinpeko adierazpena.

4. Zerbitzuagatiko diru-kontraprestazioa likidatu izanaren zinpeko adierazpena.

c) Documento o memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas firmado por las partes que refleje (Anexo I):

1º. Explotación agraria en la que se ha producido la sustitución
2º. Su coste y financiación

3º. Declaración jurada de que se ha ejecutado el servicio de sustitución.

4º. Declaración jurada de que ha sido liquidada la contraprestación monetaria por el servicio.

d) Gainera, gaixotasunagatiko edo istripuagatiko ordezkapenetan, baja alta-agiriarekin justifikatuko da, edo baja berresteko azken partearekin urte naturaletik harago luzatuko den bajaren kasuan. Nolanahi ere, baja berresteko parteek diruz lagundu beharreko aldia estali beharko dute..

d) Además, en las sustituciones por enfermedad o accidente la baja será justificada con el parte de alta, o el último parte de confirmación de baja en el caso de una baja que vaya a prolongarse más allá del año natural. En todo caso, los partes de confirmación de baja deberán cubrir el periodo a subvencionar.

2. Justifikazioa aurkezteko formularioarekin batera, aseguruen kasuan ordainketa justifikatzeko unean aurkeztu beharreko dokumentazioa, nekazaritzako aseguruen plan nazionalaren (ENESA) barruan sinatutako aseguruen kasuan izan ezik, honako hau izango da:

a) poliza osoa, laguntza hau eskatzen den lehen aldia bada, edo baldintzak berritu badira.

b) sinatutako eta ordaindutako polizaren ordainagiria.

2. Junto con el formulario de presentación de justificación, la documentación a presentar en el momento de la justificación para el pago en el caso de seguros, salvo en el caso de los seguros suscritos dentro del plan nacional de seguros agrarios (ENESA) será la que se indica a continuación:

a) póliza completa si es la primera vez que se solicita esta ayuda, o las condiciones hayan sido renovadas.

b) recibo de la póliza suscrita y pagada.

23 oinarria. *Eskabideak eta laguntza justifikatzeko aurkezteko tokia.*

Eskaerak leku hauetan aurkeztuko dira:

Base 23. *Lugar de presentación de solicitudes y justificación de la subvención*

Las solicitudes y la justificación de la subvención se presentarán en:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, www.ebizkaia.eus webgunearen bidez.

2. Gainera, aurrez aurre, leku hauetan::

- Ustiategiaren kokalekuari dagokion eskualdeko nekazaritza-bulegoan edo herritarrei laguntzeko bulegoan.
- Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren Landa Garapenerako Zerbitzuaren erregistroan (Agirre Lehendakariaren etorbidea 9, 2. solairua, 48014 Bilbo), astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era.
- Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren erregistroan (Rekalde zumarkalea 30, 3. solairua, 48009 Bilbo), irekita dagoen orduetan (08:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian (Diputazio kalea 7, beheko solairua. Foru Liburutegiaren kristalezko eraikina, Foru Jauregiaren atzealdean, 48009 Bilbo), 08:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera, eta 16:00etatik 17:30era, astelehenetik ostegunera.
- Hori guztia hala izango da, ezertan eragotzi gabe Foru Aldundiaren 6/2020 Foru Dekretua, otsailaren 4koa, dokumentuen erregistro elektroniko orokorra arautzen duena.

3. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aipatzen diren bitartekoak erabili ahal izango dira eskabideak aurkezteko.

Eskabidea posta-bulegoan aurkezten bada, Posta Zerbitzuei buruzko Erregelamenduaren 31. artikuluak ezartzen duena bete beharko da (1829/1999 ED). Artikulu horren arabera, eskabideak gutun-azal ireki batean aurkeztu behar dira, hartara argi jasota gera daitezen, bidali nahi den agiriaren lehen orriaren goiburuan, bulegoaren izena eta dokumentua onartzen den lekua, data, ordua eta minutua. Agiria hartu izanaren frogagirian ere jaso beharko dira datuok eta inguruabarrok.

1. En la sede electrónica de la Diputación de Bizkaia, a través de la página web www.ebizkaia.eus

2. Además, de manera presencial en los siguientes lugares:

- En la Oficina Comarcal Agraria u Oficina de Atención Ciudadana, correspondiente a la ubicación de la explotación.
- En el Registro del Servicio de desarrollo rural del Departamento de Medio Natural y Agricultura, (Avda. Lehendakari Agirre, nº9; 2ª planta, 48014 Bilbao), de lunes a viernes, de 8:30 a 13:30 horas.
- En el Registro del Departamento de Medio Natural y Agricultura (Alda. Rekalde, 30-3º 48009 Bilbao), dentro del horario de funcionamiento del citado registro (de 08:30 a 13:30 horas, de lunes a viernes).
- En el Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (c/ Diputación, 7, planta baja, edificio de cristal de la Biblioteca Foral, trasera del Palacio Foral, 48009 Bilbao), de 08:30 a 13:30 horas de lunes a viernes y de 16:00 a 17:30 horas de lunes a jueves.
- Todo lo anterior, sin perjuicio de lo establecido en el Decreto Foral 6/2020, de 4 de febrero, de la Diputación Foral de Bizkaia, del registro electrónico general de documentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Asimismo, podrán utilizarse los medios de presentación previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En caso de presentar la solicitud en la Oficina de Correos, deberá cumplirse lo dispuesto en el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios Postales, en virtud del cual “las solicitudes se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. Estas circunstancias deberán figurar en el resguardo justificativo de su admisión”.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aurreko paragrafoan adierazitakoa dela eta, honako hau hartu behar da kontuan:

Aurkeztutako eskabidean ez bada jasota geratzen zer egunetan eta ordutan onartu den agiria posta-bulegoan, Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan sartzen den eguna hartuko da, ondorio guztietarako, eskabide horren aurkezpen eguntzat.

En relación con lo señalado en el párrafo anterior, debe tenerse en cuenta lo siguiente:

Si en la solicitud presentada no se ha hecho constar la fecha y lugar de su admisión por la oficina de Correos, será considerada a todos los efectos como fecha de presentación, la fecha en la que la solicitud haya tenido entrada cualquiera de los registros de la Diputación Foral de Bizkaia.

24. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

Aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo okerren bat dagoela ikusten bada, edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako moduan ebazpena eman ondoren.

Edozelan ere, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio edo informazio guztia eskatu ahal izango zaio eskatzaileari. Arau honetan ezarri ez den guztian, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoa ezarriko da.

Base 24. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Si en la solicitud presentada se advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud, o bien no reuniera todos los requisitos establecidos, se requerirá al interesado o interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En cualquier caso, se podrá requerir a la persona solicitante cuanta documentación y/o información complementaria se estime necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

25. oinarria. *Aurrekontu-izendapena*

Foru-dekretu honen arabera eman daitezkeen dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du inolaz ere gainditu 2026eko ekitaldiko aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa, ez eta hura eguneratzearen ondoriozkoak ere, baldin eta indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira.

2026. urteari dagokion ekitaldirako 261.000 eurotan zenbatetsitako aurrekontu-zuzkidura ezarri da.

- Zainpeketa honetatik gaixotasun, istripu, jaiotza eta oporraldiagatik nekazaritza-ustiategietan ordezkapen-zerbitzuak emateko laguntza-lerrorako zainpeketa honako hau izango da :

Base 25. *Consignación presupuestaria*

La cuantía global de las subvenciones que pueden otorgarse con arreglo a este Decreto Foral no podrá superar en ningún caso, el importe de la dotación presupuestaria del ejercicio 2026 de los que resulten de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias conforme a la legislación vigente.

Para el ejercicio correspondiente al año 2026 se establece una consignación presupuestaria estimada por importe de 261.000 euros.

- De esta consignación la consignación para la línea de ayuda de servicios de sustitución en las explotaciones agrarias por enfermedad, accidente, nacimiento y por periodo vacacional será la siguiente:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| KUDEAKETA ZENTROA CENTRO GESTOR | PROGRAMA PROGRAMA | SAILKAPEN EKONOMIKOA CLASIFICACIÓN ECONÓMICA | EKITALDIA EJERCICIO | GASTU PROIEKTUA PROYECTO DE GASTO | ZENBATEKOA IMPORTE |
|---|---|---|---|---|---|
| 0202 | 414104 | 443.00 | 2026 | 2007/0605 | 11.000 |
| 0202 | 414104 | 449.00 | 2026 | 2007/0605 | 28.000 |
| 0202 | 414104 | 469.99 | 2026 | 2007/0605 | 72.000 |

- Aseguru-primetarako dirulaguntzak

- Subvenciones para primas de seguros:

| KUDEAKETA ZENTROA CENTRO GESTOR | PROGRAMA PROGRAMA | SAILKAPEN EKONOMIKOA CLASIFICACIÓN ECONÓMICA | EKITALDIA EJERCICIO | GASTU PROIEKTUA PROYECTO DE GASTO | ZENBATEKOA IMPORTE | NEKAZARITZAKO ASEGURU KONBINATUAK (ENESA) SEGUROS AGRARIOS COMBINADOS (ENESA) | ASEGURU INDIBIDUALAK SEGUROS INDIVIDUALES |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0202 | 414104 | 443.00 | 2026 | 2007/0605 | 35.000 | 21.000 | 14.000 |
| 0202 | 414104 | 449.00 | 2026 | 2007/0605 | 50.000 | 28.500 | 21.500 |
| 0202 | 414104 | 469.99 | 2026 | 2007/0605 | 58.000 | 18.000 | 40.000 |
| 0202 | 414104 | 451.00 | 2026 | 2007/0605 | 7.000 | 0 | 7.000 |

Hala ere, ebatzitako eskabideak kontuan hartuta, eta pertsona eta entitate onuradunak era askotakoak izan daitezkeenez, foru-dekretu honen bidez ezarritako diru-izendapenak foru-dekretu honetan azaldu diren partiden artean banatu ahal izango dira, foru-agindu bidez

Ello, no obstante, en función de las solicitudes resueltas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este Decreto Foral podrán redistribuirse mediante Orden Foral entre las partidas señaladas en este Decreto Foral.

Indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, deialdi honetan aplikatzeko zenbateko gehigarri gisa hartuko dira Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onartzen duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua aplikatuz eskuragarri dauden kredituak, gehienez ere 3.000.000 eurora arte.

De conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente, tendrá carácter de cuantía adicional para su aplicación en esta convocatoria aquellos créditos disponibles en aplicación del artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, hasta un importe máximo de 3.000.000 €.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru-agindu bidez, erabilgarri dauden kredituen adierazpena eta haien behin betiko banaketa argitaratuko dira, dirulaguntzak emateko ebazpena onetsi baino lehen. Halere, horrek ez du ekarriko eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik.

Mediante Orden Foral se publicará la declaración de créditos disponibles resultantes y su distribución definitiva, en un momento anterior a la resolución de las concesiones de las subvenciones, sin que ello implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes.

Aurrekontu-izendapen hori gauzatzeko, ezinbestekoa da kreditu nahikoa eta egokia egotea 2026eko ekitaldian foru-dekretu honen ondorioz sortzen diren eginbeharrak finantzatzeko.

Esta consignación presupuestaria queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del presente Decreto Foral en el ejercicio 2026.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

# I.ERANSKINA – ORDEZKAPEN ZERBITZUA/ ANEXO I – SERVICIO DE SUSTITUCIÓN

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACION RESPONSABLE

Nik,........................................................................ ..............NA/IFK:......................................................,

Jakinarazten dut ORDEZKAPEN ZERBITZUA kontratatu dudala nire ustiategirako (ustiategi zenbakia:...................................), kostua ...................... eurokoa izan dela eta pertsona hau kontratatu dudala ..........................................................................

(NAN/IFK: ..........................) eta

**ADIERAZTEN DUT kontratua bere osotasunean bete dela eta ordezkapena egin duen pertsonak, goian adierazitakoak, hartu duela kontratuan hitzartutako zenbatekoa.** (Ikus bedi erantsitako ordezkapen-zerbitzuko kontratua).

Dagozkion ondorioetako hala jasota gera dadin.

Yo.......................................................................................... ......

DNI/CIF; ..........................................................................

Comunico que he contratado un SERVICIO DE SUSTITUCIÓN para la explotación ...................................... con un coste de ..................... euros con ...................................................................

(DNI/CIF ......................................) y

**DECLARO que el servicio ha sido realizado satisfactoriamente en su totalidad y que la persona que ha realizado la sustitución arriba indicada ha recibido el importe estipulado por contrato.** (Véase contrato de servicio de sustitución adjunto)

Para que conste y surta los efectos oportunos.

Bilbon, 202...(e)ko aren (e)(a)n

En Bilbao, a de de 202...

KONTRATATZAILEAREN SINADURA
FIRMA PERSONA CONTRATANTE

KONTRATATUAREN SINADURA
FIRMA PERSONA CONTRATADA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: JZTP-14IV-J0EZ-B3DC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus